

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 20,00 horas del día 16 de abril de 2015, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión ordinaria con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as Dña. M<sup>a</sup> Roncesvalles Azanza Burusco, D. Juan Manuel Azanza Burusco, Dña. M<sup>a</sup> Aranzazu Oyarbide Lapazarán, D. Alejandro Otegi Echeverría y D. Josu Martinez Rico, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. José Irigaray Gil, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure. Excusa su asistencia el concejal D. Luis De Potestad Tellechea.

### **1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE SESIÓN DE 2 DE MARZO DE 2015.**

Toma la palabra la Secretaria que informa que en el acta de sesión de 2 de marzo de 2015 no ha incluido el anexo que solicitó el concejal Sr. De Potestad, porque si bien es verdad que conforme al artículo 27 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, los miembros de la corporación tienen derecho a solicitar la transcripción íntegra de su intervención o propuesta, siempre que aporte en el acto, el texto que se corresponda fielmente con su intervención, haciéndose así constar en el acta o uniéndose copia a la misma, lo cierto es que en este caso, se solicitó que se adjuntara un anexo al acta pero no se leyó y por tanto el resto de concejales, que también tienen derecho a saber el contenido del anexo no pueden pronunciarse al respecto.

Toma la palabra el concejal Sr. Martinez que señala que a pesar de la explicación de la secretaria y aunque no tiene nada que objetar a la contenido del acta de fecha 2 de marzo de 2015, no la aprueba por no recogerse en la misma el anexo mencionado en el párrafo anterior y solicitado por el concejal Sr. De Potestad.

Tras lo cual, a Corporación acuerda con cinco votos a favor y uno en contra del Sr. Martinez, la aprobación del acta de sesión ordinaria celebrada el día 2 de marzo de 2015.

### **2.- CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE ALCALDÍA EMITIDAS DESDE EL 24 DE FEBRERO DE 2015 HASTA EL 14 DE ABRIL DE 2015.**

Informa el Sr. Alcalde del contenido de las Resoluciones de Alcaldía de 24 de febrero de 2015 hasta el 14 de abril de 2015, que constan en el expediente de la sesión, dándose los miembros de la Corporación por enterados, previa aclaración al concejal Sr. Martinez de la resolución nº 26 relativa a concesión de subvenciones para actividades deportivas y en concreto información sobre el Club Deportivo Ibararte.

### **3.- APROBACION INICIAL CUENTAS 2014.**

Actúa el Ayuntamiento en funciones de Comisión Especial de Cuentas

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa que del expediente de cuentas lo más destacado son las modificaciones realizadas a lo largo del año como consecuencia de la ejecución de las obras de pavimentación plaza

Ayuntamiento y calle Zubiarte de 59.612 euros y asfaltado caminos de 65.614,92 euros.

Toma la palabra el concejal Sr. Martínez que manifiesta que al hilo de lo reprochado en los últimos plenos, su grupo va a votar en contra, una vez que cuenta con toda la documentación en su poder, por lo siguiente:

- Por un lado la ejecución de la obra del Paseo Saroberri: Por Resolución de alcaldía de 27 de marzo de 2014, se adjudica a Mendizar su ejecución por importe de 6.170 € más IVA. El 5 de septiembre, previa certificación de obra de fecha 3 de septiembre, se dicta una orden de pago por importe de 11.113,85 €, que se abona el 9 de septiembre. Hasta octubre no se aprueba la modificación presupuestaria por importe de 3.113,85 €. Un 49% de subida respecto al precio inicial sin ningún tipo de justificación como se ha podido comprobar al examinar el expediente de contratación. El hecho es importante también porque el importe es similar a la cuantía negativa del resultado presupuestario de éste año, con las consecuencias que ello puede tener conforme a la Ley de estabilidad presupuestaria.

- Por otro, con la ayuda al transporte escolar ocurre lo mismo, se abonan 2.000 € antes de la sesión de octubre en la que aprueba la modificación presupuestaria para su inclusión, sin mediar acuerdo de pleno por la se concede la ayuda, siendo un tema de competencia municipal y no de la Agrupación.

El artículo 207.2 de la Ley foral 2/1995, que regula las Haciendas forales de Navarra establece que “No podrán autorizarse o adquirirse compromisos de gasto en cuantía superior al importe de los créditos aprobados en los estados de gastos, siendo nulos de Pleno derecho los acuerdos, resoluciones y actos administrativos que infrinjan la expresada norma, sin perjuicio de las responsabilidades a que haya lugar”. La Ley Foral de Subvenciones (La Ayuda al transporte escolar lo es) se pronuncia en el mismo sentido, pero hasta las bases presupuestarias aprobadas del presupuesto del Ayuntamiento de Burguete para el año 2014 reseñan lo mismo.

Que el señor alcalde intente justificarse en la no presentación de recursos por parte de nuestro grupo para dar cobertura legal a sus actuaciones no se sostiene. ¿Qué cree que dictaminaría la Cámara de Comptos en caso de emitir un informe?

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que responde que respecto a los dos temas mencionados, sobradamente se han tratado en anteriores sesiones y en concreto respecto al expediente de la obra del paseo Saroberri se informó que se había ejecutado más obra de la prevista tal como queda reflejado en el expediente, en todo caso las modificaciones se aprobaron por unanimidad.

Tras lo cual, visto el expediente del Cierre de Cuentas de 2014. La Corporación acuerda por con cinco votos a favor y uno en contra del concejal Sr. Martínez:

1.-Aprobar la “Cuenta General” formada por la Intervención.

2.-Aprobar el “Informe de la Comisión Especial de Cuentas” y exponerlo al público en el tablón de anuncios el acuerdo por 15 días hábiles de conformidad con el artículo 242.3 de la Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra.

#### **4.- APROBACIÓN INICIAL PRESUPUESTO 2015.**

Presenta el alcalde Sr. Irigaray los presupuestos municipales para 2.015, que asciende a 476.636 €, señalando que son unos presupuestos acordes con la situación de crisis existente y obligados por el cumplimiento de la Ley de Estabilidad Presupuestaria, siendo la partida de gastos más importante la que se refiere a la partida de actuaciones forestales. Tratándose de un presupuesto continuista del ejercicio anterior. Si bien es probable que determinadas partidas requieran a lo largo del año de modificaciones.

Toma la palabra el concejal Sr. Martínez que manifiesta que su grupo no va a aprobar los presupuestos por los mismos motivos que en el año 2014. Entendiendo que aunque va a ser una legislatura complicada, no refleja las necesidades que tiene Burguete.

Debatidos los presupuestos, se acuerda con cinco votos a favor y uno en contra del concejal Sr. Martínez, aprobar inicialmente los presupuestos para 2.015.

#### **5.- APROBACION INICIAL PLANTILLA ORGANICA 2015**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa que no se han producido cambios respecto del año anterior.

La corporación aprueba por unanimidad de forma inicial la siguiente plantilla orgánica para 2.015

Funcionarios.

Denominación del puesto: Empleado de Servicios Múltiples. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: E. Condiciones de ejercicio: Activo. Complemento de nivel 15%: Complemento de puesto de trabajo 15,77% Jornada completa.

Relación nominal de funcionarios

E.S.M.: Don Jesús Román Pedroarena Etulain

.

Personal laboral fijo.

Denominación del puesto: Auxiliar Administrativo. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: D. Condiciones de ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 12%, Complemento de puesto: 28,35%, Jornada: 28,56%.

Denominación del puesto: Auxiliar Administrativo. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: D. Condiciones del ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 12%, Complemento de Puesto: 28,35%, Jornada: 28,56%.

Denominación del puesto: Empleado de Servicios Múltiples. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: E. Condiciones del ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 15%. Complemento de Puesto de trabajo 8,77% Jornada: 35%.

Relación nominal de empleados fijos en régimen laboral.

Auxiliar Administrativo: Doña Ana Isabel Ermeta Erro.  
Auxiliar administrativo: Doña María José Garralda Zubiri.  
Empleado de servicios múltiples Doña Cristina Carra García.

Personal laboral temporal.

Denominación del puesto: Técnico de Euskera. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Euskera. Nivel: B. Condiciones del ejercicio: Activo. Complemento de Puesto 6,73% Jornada completa.

Relación nominal de contratados laborales temporales.

Técnico de Euskera: Doña Teresa Iribarren Larrea.

Servicios agrupados con los Ayuntamientos de Orreaga-Roncesvalles y Valle de Erro.

Denominación del cargo: Secretario. Número de plazas: 1. Forma de la provisión: Concurso-oposición. Nivel A. Complementos puesto de trabajo: 40%, Incompatibilidad 35% Jornada Completa.

Relación nominal de personal contratado en régimen administrativo

Ezcurra Irure, M<sup>a</sup> Soledad. Secretaria interina. Situación: Activo. Antigüedad 11/06/2012

## **6.- CELEBRACION DE BATZARRE, CUENTAS Y PRESUPUESTOS**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que siendo la celebración del batzarre de obligado cumplimiento, tal y como recoge la ordenanza municipal de Auritz/Burguete, propone al ser año electoral y con el fin de que no parezca que se aprovecha el mismo para hacer un mitin político, posponer la celebración del batzarre hasta pasadas las elecciones y llevarlo a cabo el día 29 de mayo, viernes a las 19 h,

La Corporación, estando de acuerdo con la propuesta del alcalde Sr. Irigaray, acuerda por unanimidad celebrar el Batzarre de cuentas y presupuestos el día 29 de mayo, viernes, a las 19,00 horas

## **7.- APROBACION DEL PLAN TECNICO DE GESTION DE EXPERIENCIA PILOTO DE PARQUE MICOLOGICO EN ERROIBAR/VALLE DE ERRO, ORREAGA/RONCESVALLES Y AURITZ/BURGUETE. DELEGACION EN EL AYUNTAMIENTO DE ERROIBAR/ VALLE DE ERRO.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que informa del proyecto sobre micología promovido por el Ayuntamiento del Valle de Erro, y al que han invitado a adherirse a Burguete y a Roncesvalles. Proyecto que consiste en una experiencia piloto no solo para la recogida de hongos, sino que lo deja abierto a otros productos del monte, así como a su comercialización dándole un toque diferente a otros proyectos y todo ello con criterios medioambientales, sociológicos y económicos con el fin de que haya un equilibrio en la recogida de dichos productos.

Toma la palabra el concejal Sr. Martinez que señala estar de acuerdo con la iniciativa y más cuando ya su grupo planteó con anterioridad este asunto.

Pregunta a su vez, cómo se van a repartir los gastos y en que porcentajes entre los tres Ayuntamientos participantes del proyecto. Contesta el alcalde Sr. Irigaray que todavía no se sabe, si bien el alcalde del Ayuntamiento del Valle de Erro, está moviéndose para buscar financiación externa. En todo caso, el proyecto ya está redactado y falta su ejecución que se estudiará de que manera se va a hacer frente a la misma. Tanto la concejala Sra. Azanza como el alcalde Sr. Irigaray, señalan que es un proyecto que el Valle de Erro sólo no podía hacer frente ya que económicamente no hubiera sido rentable al necesitar, para que así lo sea, unas 3.000 hectáreas, así mismo añade la concejala Sra. Azanza que el proyecto que planteo el grup PNV tampoco hubiera podido ser viable en términos económicos. Por ello era preciso al estar en el mismo eje y tener el terreno necesario la incorporación de los términos de Roncesvalles y Burguete para sacar adelante el Plan, siendo beneficioso para los tres Ayuntamientos.

Debatido el asunto, se acuerda por unanimidad aprobar el Plan técnico de gestión de experiencia piloto de parque micológico en Erroibar/Valle de Erro, Orreaga/Roncesvalles y Auritz/Burguete y delegar en el Alcalde de Erroibar/Valle de Erro cuantas acciones y gestiones sean necesarias para la ejecución de los trabajos.

## **8.- CONSTITUCION DE MANCOMUNIDAD PARA LA PRESTACION Y GESTION DEL LA ENSEÑANZA DE MUSICA Y NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTES PARA LA COMISION ESTATUTARIA.**

Estudiada la conveniencia de constituir una Mancomunidad en la que se integren los municipios de Artzibar/Valle de Arce, Auritz/Burguete, Berrioplano, Erroibar/Valle de Erro, Luzaide/Valcarlos y Valle de Esteribar, con el objeto de resolver la problemática que plantea la gestión de determinados servicios culturales como la Escuela de música Orreaga, el alcalde Sr. Irigaray expone la propuesta de los representantes de los Ayuntamientos mencionados de constituir voluntariamente una Mancomunidad, con arreglo a lo dispuesto en los artículos 31 y siguientes del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de 11 de julio de 1986 y los artículos 40 y 50 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local de Navarra.

Considerando que para constituir la citada Mancomunidad es necesaria la designación de una Asamblea o Comisión de Estudio integrada por representantes de los municipios que pretendan y acuerden integrarse en ella, a los efectos de proceder a la redacción de los Estatutos por los que habrá de regirse, los cuales deberán estar expuestos a información pública y sometidos a la consideración de los Plenos de los distintos municipios, al tiempo que deciden sobre su incorporación a la misma.

La Corporación por unanimidad acuerda:

1º.- Iniciar expediente para promover la constitución de una Mancomunidad entre los municipios de Artzibar/Valle de Arce, Auritz/Burguete, Berrioplano, Erroibar/Valle de Erro, Luzaide/Valcarlos y Valle de Esteribar, para la

prestación y gestión de los servicios de carácter cultural, entre los que se incluirá la gestión de la denominada Escuela de Música Orreaga.

2º.- Designar a los/as Concejales/as que a continuación se relacionan, para formar parte, en representación del este Ayuntamiento, en la Comisión que junto con los designados por los demás municipios que así lo acuerden, deberán elaborar inicialmente el Proyecto de Estatutos por los que se registrá la Mancomunidad:

Doña M<sup>a</sup> Roncesvalles Azanza Burusco  
Don Luis De Potestad Tellechea

### **9.- PROPUESTA DEL GRUPO MUNICIPAL DE EAJ/PNV PARA LA CREACIÓN DE UN GAZTEGUNE COMARCAL.**

Toma la palabra el concejal Sr. Martinez, para explicar que se trata de un plan ambicioso abierto a todos los colectivos y a todas las aportaciones con el fin de que pueda ser mejorado y salga adelante. Un proyecto que va más allá de los Gaztetxes, que abarca a un tramo de población importante entre los 12 y los 30 años cada uno con sus características, siendo beneficioso no solo para la localidad de Burguete sino para toda la comarca, por lo que es necesario que tanto los Ayuntamientos como otros agentes sociales se involucren y colaboren para su desarrollo. En un primer momento, se empezaría con Burguete, entendiendo como lugar ideal donde desarrollar las actividades la Casa de Cultura de Burguete, que a su vez serviría para darle vida tanto al local como a los jóvenes. Toma la palabra el concejal Sr. Otegui que pregunta qué tipo de actividades se llevarían a cabo ya que por ejemplo en el Valle de Aezkoa ya hay un club deportivo. Contesta el concejal Sr. Martinez que se trata de crear las bases y tener un lugar de formación y encuentro siendo los jóvenes quienes se tienen que buscar y gestionar las mismas. En todo caso, se trata de dar los primeros pasos cara a la próxima legislatura, hablar con técnicos especialistas en este tipo de temas que nos asesoren al respecto e involucrar como ya se ha dicho a las instituciones y colectivos, es un punto de partida, una puesta en escena para empezar a andar.

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray que respecto a este asunto manifiesta por un lado que le llama la atención que el tramo sea tan amplio, ya que los 30 años lo considera excesivo, por otro informa que se puso en contacto con una empresa llamada Karekin Kultura de Aoiz para hablar de la casa de cultura y ver que se podía hacer con ella en aras a su dinamización, es una empresa especializada en este tipo de temas, por lo que a la vista del planteamiento presentado por el grupo PNV, propone trasladar a la empresa esta propuesta del Gazteguno y haga un estudio global de todo ello.

Se aprueba por unanimidad la idea formulada por el alcalde Sr. Irigaray y trasladar a Karekin Kultura la propuesta formulada por el grupo PNV para la creación del Gazteguno de Auritz/Burguete.

## **10.- INFORMACION VARIA.**

### **Costes de los informes encargados por la explotación de Mendiandi.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray de cumpliendo con lo solicitado en la última sesión de pleno por el Sr. De Potestad los costes del informe emitido por Beaumont-Aristu Abogados sobre la implantación de la actividad en Mendiandi asciende a 1815 €, las alegaciones a la licencia de actividad que tramita el Ayuntamiento de Erro preparadas por el mismo despacho a 726 € y los trabajos realizados por la bióloga Camino Jaso León a 1573 € por el análisis de repercusión de la cantera y 2537 € pagados en 2012 por el informe medioambiental realizado con motivo de la fase de alegaciones al proyecto de investigación.

Así mismo añade que estos son informes que los debería haber realizado la Administración Foral y critica la actitud de ésta ya que lo que ha hecho es inmiscuirse de responsabilidad y trasladar el problema a dos ayuntamientos a los que este proyecto viene muy grande y que considera que el gasto realizado queda mas que justificado cuando estábamos hablando de que se hacía en 90.000 m2 municipales aproximadamente.

La Corporación se da por enterada.

### **Estela discoidal municipal.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que se ha pedido al Ayuntamiento de Pamplona la cesión de la estela procedente de esta villa que se encontraba en el Baluarte del Redin y que actualmente está retirada en almacenes municipales.

La Corporación se da por enterada.

### **Piscina fluvial de Antsobi.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que la CHE ha desestimado el recurso de reposición formulado por el Ayuntamiento para obtener permiso para la colocación de la presa en época estival

La Corporación se da por enterada.

### **Traslado de huevos de rana bermeja.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que como ya se hace desde hace quince años, el pasado 21 de marzo vecinos junto con personal del Guarderío de Medio Ambiente, procedieron al traslado de huevos de rana bermeja de balsas temporales a balsas con agua permanente para favorecer el desarrollo y mantenimiento de la especie

La Corporación se da por enterada.

### **Marca de ganado y auzolan.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que la marca del ganado que pastará en Menditxuri, Atalozi y Lindus tendrá lugar el próximo 16 de mayo y que el auzolan se llevara a cabo en fecha que se determinará junto con los ganaderos para disponer de tractores y no incidir negativamente en sus tareas.

La Corporación se da por enterada.

### **Venta de lotes de madera.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que tras varias prorrogas tuvo lugar la subasta de los lotes, siendo adjudicado el de Añoberrieta a Larregoitia Egurrak S.L. por

un importe de 45.913,00 € y el de Antsobi a Arimar y que asciende a 31.400,00 €.

La Corporación se da por enterada.

**Agradecimiento a la Consejería de Fomento.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que próximamente remitirá a la citada Consejería en nombre del Ayuntamiento una carta de agradecimiento por los buenos resultados y la atención recibida en el desarrollo del Plan Invernal de Limpieza de Carreteras.

La Corporación se da por enterada.

**Reunión de la comisión de estatutos de la nueva Agrupación de Servicios.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que se ha reunido la comisión y se ha dado el visto bueno al borrador de estatutos los cuales se pondrán a exposición.

La Corporación se da por enterada.

**Fiestas patronales de San Juan Bautista.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray que se emitió un bando dirigido a toda la población y en especial a la juventud en aras a determinar los días de las fiestas patronales, opinando todos los asistentes que deben celebrar del 23 al 27 de junio. Por otra parte le han llegado voces de que algunas jóvenes quieren bailar el Tribuli ante las autoridades en la noche de San Juan, que personalmente considera que el hecho poco contribuye a conseguir la igualdad entre géneros, pero respetando las diferentes opiniones, considera que es un tema que se deberá hablar con toda la juventud en aras a evitar crispación y conflictos durante la celebración del baile en las casas correspondientes. El concejal Sr. Otegui propone que se mande un bando por la casas diciendo que van a bailar las chicas el Tribuli, y entiende que entre los jóvenes no hay problema, el problema está en la gente mayor. Responde el alcalde que no quiere mandar el bando ya que es dar por hecho que las chicas van a bailar cuando ninguno somos nadie para decir si tienen que bailar o no, en todo caso insiste que es un tema que hay que debatir para evitar confrontaciones como en Baztán.

El concejal Sr. Martínez afirma que en este caso está de acuerdo con lo que dice el alcalde Sr. Irigaray.

Toma la palabra la concejala Sra. Azanza que pregunta si estaban informados los hosteleros y si acudieron a la reunión, contestando el alcalde Sr. Irigaray que se mandó un bando por todo el pueblo con ese único tema a decidir las fechas de las fiestas y no acudió nadie de la hostelería. La concejala Sra. Azanza entiende que si es así, luego no puede haber quejas al respecto.

La Corporación se da por enterada.

**Tararai.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que en la cuestación del domingo de Pascua celebrada por los niños se recaudaron 559 € que ha voluntad de ellos se destinarán a sufragar los gastos de la merienda, las atracciones infantiles de fiestas, los materiales del puesto de manualidades que ponen en la Feria de Agosto y películas para el invierno.

La Corporación se da por enterada.



### **Feria de Mayo.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que el próximo 3 de mayo en aras a mantener de una forma simbólica la fecha de la antigua feria, se presentará el libro titulado *La Muerte en Auritz/Burguete y su Entorno. Arte, Costumbres y Cementerios*, realizado por José Etxegoien Juanarena de Garralda. A cargo del premio al cementerio ganado el año pasado.

La Corporación se da por enterada.

### **Plaza del Centro de Salud.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray de que la Consejería de Salud le ha informado que tiene intención de reparar el pavimento de la plaza sustituyéndolo por asfalto. Que por su parte les ha ofrecido verter el escombros en el camino de Berroaudia.

La Corporación se da por enterada.

## **11.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

- Toma la palabra el concejal Sr. Martínez, que pregunta si se ha hecho algo con el tema del inventario de la Casa de Cultura y lo vuelve a solicitar. Contesta el alcalde Sr. Irigaray que se compromete a tenerlo para la próxima sesión.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 21,00 h. del mismo día se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2015eko apirilaren 16an, 20:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: M<sup>a</sup> Roncesvalles Azanza Burusco, M<sup>a</sup> Aranzazu Oyarbide Lapazarán, Juan Manuel Azanza Burusco, Alejandro Otegi Echeverría eta Josu Martínez Rico, bilkuraburu alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Luis de Potestad Tellechea.zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

### **1.- 1.- 2015eko MARTXOAREN 2ko BILKURAREN AKTAREN ONESPENA**

Idazkariak hitza hartu du eta esan du 2015eko martxoaren 2ko bilkuraren aktan ez duela De Potestad jk. eskatu duen eranskina sartu; egia dela Administrazio Publikoen eta Ohiko Prozedura Administratiboaren erregimen Juridikoaren 30/1992 Legearen 27. artikulua araberak udalkideek eskubidea dutela beraiek esandakoa edo proposatutakoa hitzez hitz agertzea eskatzeko eskubidea dutela, beti ere esandakoarekin bat egiten duen testua bileran bertan aurkeztuz gero, aktan horrela agertuz edo kopia erantsiz; baina kasu honetan eranskina aktari eranstea eskatu zela baina ez zela irakurri eta, hortaz, gainontzeko zinegotziek ezin dute horren gainean deus erran ez baitakite eranskinak zer dioen.

Martinez zinegotziak hitza hartu du eta esan du nahiz eta idazkariak azalpena eman eta 2015eko martxoaren 2ko aktaren edukiari buruz esatekorik ez izan,

ez duela onartuko, ez baita aurreko zatian aipatutako eranskina bildu, De Potestad zinegotziak eskatu bezala.

Horren ondoren, Udalbatzak erabaki du aldeko bost botoz eta aurkako batez (Martinez) 2015eko martxoaren 2an egindako osoko bilkura arruntaren akta onartzea.

## **2.- 2015eko OTSAILAREN 24tik APIRILAREN 14a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Alkateak 2015eko otsailaren 24tik apirilaren 14ra eman dituen ebazpenen informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun daude; aldez aurretik Martinez jk. 26. ebazpenaren inguruan eskatu duen informazioa emanez, kirol jarduerentzako emandako diru laguntzak eta, zehazki, Ibararte Kirol Kluba.

## **3.- 2014eko KONTUEN HASIERAKO ONESPENA**

Udala Kontuen Batzorde Bereziaren lanak eginez ari da.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta jakinarazi du kontuen espedientetik nabarmenena dela urtean zehar egin diren aldaketak, Udal plazaren eta Zubiarte karrikaren zolaketa lanengatik 59.612 eurokoa, eta bideen zolaketarena, 65.614,92 eurokoa.

Martinez jk. hitza hartu du eta esan du azkeneko bilkuretan aipatu bezala, bere taldeak kontra bozkatu behar duela, dokumentazio guztia jaso ondoren, honako arrazoiak aipatuz:

- Alde batetik Saroberri pasealekuan egin diren lanak. 2014ko martxoaren 27ko alkate-ebazpenaren bidez, lanak Mendizar enpresari adjudikatu zitzaizkion, 6.170 eurotan, + BEZ. Irailaren 3an lanen ziurtapena egin zen eta irailaren 5ean 11.113,85 € ordaintzea agindu zen, irailaren 9an ordainduz. Aurrekontuaren aldaketa urrian onartu zen, 3.113,85 €. Hasierako prezioaren %49ko igoera, inolako justifikaziorik gabe, kontratazio espedientea aztertuta frogatu denez. Hori garrantzizkoa da zenbatekoa aurtengo aurrekontuaren emaitzaren zenbateko negatiboaren berdina delako, horrek aurrekontuen egonkortasunaren Legearen arabera izan ahal dituen ondorioak ikusirik.

- Beste aldetik, eskola garraioaren laguntzarekin gauza bera gertatu da, urriko bilkura baino lehen 2.000 € ordaindu ziren eta bilkura horretan aurrekontuaren aldaketa onetsi zen, laguntza emateko osoko bilkuraren erabakia beharrezkoa denean, gaia udalaren eskumenekoa baita eta ez udalen batasunarena.

Nafarroako Foru Ogasunak arautzen dituen 2/1995 Foru Legearen 207.2 artikulua honakoa dio: "Ezin izanen da gastu konpromisorik hartu, horien zenbatekoa gastuen egoeretan baimendu diren kredituena baino handiagoa bada, eta aipatu arau hori urratzen duten erabaki, ebazpen eta egintza administratiboak zuzenbide osoz deusezak izanen dira, eska daitezkeen erantzukizunak galarazi gabe". Diru laguntzen Foru Legeak (eta eskola garraioaren laguntza horretan sartzen da) ildo beretik doa, are gehiago, Aurizko Udalak 2014rako aurrekontua onartzeko ezarri zituen oinarrietan gauza bera aipatzen da.

Alkateak dioenean gure taldeak ez duela errekurtsorik jarri berak egindakoari legezko estaldura emateko ez dauka inolako zentzurik. Zer uste duzu esango lukeela Kontuen Ganbarak txostena egingo balu?

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta erantzun du aipatutako bi gaiei dagokienez, aurreko bilkuretan horietaz mintzatu direla, eta Saroberriko bidetari dagokionez esan zen aurreikusita zegoena baino gehiago egin dela, txostenean aipatzen den bezala, eta, nolana ere aldaketa horiek aho batez onetsi zirela.

Beraz, 2014o Kontuen Hertsiketaren espedientea ikusita. Udalbatzak erabaki du aldeko bost botoz eta aurkako batez, Martinez zinegotziarena:

1.-Kontuhartzaitzak aurkeztu duen "Kontu Orokorra" onartzea.

2.- "Kontuen Batzorde Bereziaren Txostena" onartzea eta jendaurrean paratzea iragarki oholean 15 egun balioduneko epean, Nafarroako Toki Ogasunen Foru Legearen 242.3 artikulua dioenarekin bat eginez.

#### **4.- 2015eko AURREKONTUAREN HASIERAKO ONESPENA**

Alkateak, Irigaray jk., 2015eko aurrekontuak aurkeztu ditu, 476.636 €, eta esan du krisi egoerarekin bat egiten dutela eta Aurrekontuen Egonkortasunaren Legea bete behar dela, gastuen zatirik handiena baso jarduerari dagokiela. Aurrekontua aurrekoaren jarraipena da. Hala ere, baliteke urtean zehar zenbait sailatan aldaketak egin behar izatea.

Martinez zinegotziak hitza hartu du eta esan du bere taldeak ez dituela aurrekontuan onartu behar 2014an onartu ez zituen arrazoi berberengatik. Eta legegintzaldi zaila izango dela dio baina ez dituela Auritzen dituen beharrak islatzen.

Aurrekontuak eztabaidatu ondoren, erabaki da aldeko bost botoz eta aurkako batez (Martinez j.) 2015eko aurrekontuak hasiera batean onartzea.

#### **5.- 2015eko PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Irigaray jk. hitza hartu du eta esan du ez dagoela aldaketarik aurreko urtearekin alderatuta.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2015eko plantilla organikoa honako izatea.

Funtzionarioak

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %15. Lanpostuko osagarria %15,77 Lanaldi osoa.

Funtzionarioen izen-zerrenda.

Z.A.L.: Jesús Román Pedroarena Etulain

.

Langile finkoak.

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %12. Lanpostuko osagarria: %28,35, Lanaldia %28,56.

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %12. Lanpostuko osagarria: %28,35, Lanaldia %28,56.

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %8,77, Lanaldia: %35

Lan kontratudun finkoen izen-zerrenda.

Administrari laguntzailea Ana Isabel Erneta Erro.

Administrari laguntzailea María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu Anitzetako Langilea: Cristina Carra García

Behin-behineko lan kontratudunak:

Lanpostua: Euskara teknika Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Euskara. Maila: B. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %6,73 Lanaldi osoa.

Behin-behineko langileen izen-zerrenda:

Euskara teknika Teresa Iribarren Larrea.

Orreaga eta Erroibarko Udalekin bateratutako zerbitzuak.

Kargua: Idazkaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. A Maila. Lanpostuko osagarriak: %40, Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa.

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:

Ezcurra Irure, M<sup>a</sup> Soledad. Bitarteko idazkaria. Kokalekua: Jardunean. Antzintasuna 2012/06/11

## **6.- BATZARRE EGITEA, KONTUAK ETA AURREKONTUAK**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du batzarrea egitea ezinbestekoa denez Aurizko udal ordenantzak dioen moduan, proposatu du hauteskundeak daudenez eta mitin politiko baten itxurarik ez emateko, batzarrea hauteskunderen ondoren egitea proposatu du, maiatzaren 29an, ostiralean, 19:00etan.

Udalbatzak, alkatearen proposamenarekin ados dago eta erabaki du aho batez kontuen eta aurrekontuen Batzarrea heldu den maiatzaren 29an, ostiralean, 19:00etan egitea.

## **7.- ERROIBARREN, ORREAGA ETA AURITZEN PARKE MIKOLOGIKOAREN ESPERIMENTU PILOTUAREN KUDEAKETARAKO PLAN TEKNIKOAREN ONESPENA. ESKUMENA ERROIBARKO UDALARI EMATEA.**

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Erroibarko Udalak mikologiaren gaineko proiektua sustatu duela eta gonbidatu dituela Auritz eta Orreagako Udalak horretan sartzera. Proiektua esperimentu pilotua da, ez bakarrik ondoak biltzeko, baizik eta irekia gelditzen dela bestelako produktuak sartzeko baita horien komertzializazioa ere, beste proiektuekiko bereizteko, hori

guztia ingurumeneko irizpideei jarraituz, bai eta irizpide soziologiko eta ekonomikoei ere, produktu horien bilketa orekatua izan dadin.

Martinez zinegotziak hitza hartu du eta esan du ados dagoela ekimenarekin, are gehiago bere taldeak gaia lehenagotik proposatu zuela kontuan hartuz. Gastuak nola banatuko diren galdetu du, zeintzuk izango diren udal bakoitzari dagozkion ehunekoak. Alkateak, Irigaray jk., erantzun du oraindik ez dagoela argi, eta Erroibarko Udalaren alkatea ari dela kanpoko finantzazioa bilatzen. Dena den, proiektua idatzita dago eta nola gauzatu oraindik ez dago zehaztua. Azanza zinegotziak eta alkateak, Irigaray jk., aipatu dute Erroibarko Udalak ezin ziola aurre egin proiektu horri, ekonomikoki errentagarria izan dadin 3.000 hektarea behar baitira, eta Azanza zinegotziak gaineratu du EAJ taldeak proposatu zuen proiektua ere ez zela ekonomikoki bideragarria. Hortaz, beharrezkoa zen indarrak batzea eta proiektua aurrera ateratzeko Orreaga eta Aurizko dermioak sartzea, hiru udalentzako onuragarria izan dadin.

Gaia eztabaidatu ondoren aho batez erabaki da Erroibarren, Orreagan eta Auritzen parke mikologikoaren esperimentu pilotuaren kudeaketarako plan teknikoa onartzea eta Erroibarko alkateari ahalmena ematea lanak gauzatzeko behar diren ekimen eta gestio guztiak egin ditzan.

## **8.- MUSIKAREN IKASKETAK EMAN ETA HORIEN KUDEAKETARAKO MANKOMUNITATEA OSATZEA ETA ESTATUTUAK PRESTATZEKO BATZORDEKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA**

Zenbait kultur zerbitzuen kudeaketak, horien artean Orreaga Musika Eskola, dituen arazoei irtenbidea emateko, Mankomunitatea bat osatzeko aukera aztertu da, Artzibar, Auritz, Berriobeiti, Erroibar, Esteribar eta Luzaideko Udalez osatua, alkateak, Irigaray jk., aipatu du udal horietako ordezkariak proposatu dutela Mankomunitate bat osatzea, 1986ko uztailaren 11ko Biztanleriaren eta Lurraldearen mugaketaren Arautegiaren 31 artikuluan eta ondokoetan eta Nafarroako Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legearen 40 eta 50 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Kontuan hartuz Mankomunitatea osatzeko beharrezkoa dela Batzar edo Ikerketa Batzordea izendatzea mankomunitatea osatzeko asmoa duten udaletako ordezkarien artean Estatutuak idazteko, eta horiek jendaurrean egon beharko dutela eta ondoren udal bakoitzeko osoko bilkuraren erabakia hartu beharko dela.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

- 1.- Artzibar, Auritz, Berriobeiti, Erroibar, Esteribar eta Luzaideko Udalek osatuko duten Mankomunitatea sustatzeko espedienteari hasiera ematea, kultura izaera duten zerbitzuak eman eta kudeatzeko, horien artean Orreaga Musika Eskola.
- 2.- Ondoren aipatzen diren zinegotziak Udal honen ordezkari izendatzea gainontzeko udaletako ordezkariekin batera Mankomunitatea arautuko duten Estatutuen proiektua prestatzeko.

M<sup>a</sup> Roncesvalles Azanza Burusco  
Luis De Potestad Tellechea

## **9.- EAJ UDAL TALDEAREN ESKUALDEKO GAZTEGUNEA ERATZEKO PROPOSAMENA**

Martinez zinegotziak hitza hartu du eta azaldu du asmo handiko proiektua dela, talde guztiei eta ekarpen guztiei irekia, hobetzeko eta aurrera eramateko asmoz. Proiektua gaztetxez haratago doa, 12 eta 30 urte bitarteko biztanleentzako da, eta ez da Luzaideko herriarentzako bakarrik baizik eta eskualde osorako, eta beharrezkoa dela bai udalak zein beste eragileak parte hartzea horren garapenean. Auritzekin hasiko litzateke, bertan dagoelako Kultur Etxea eta hori izan ahal baita leku aproposa, eta horren bidez bai etxeari zein gazteei bizitasuna emango litzaike. Otegi jk. hitza hartu du eta galdetu du zer nolako jarduerak egingo litzatekeen, adibidez Aezkoan badagoelako kirol elkarte bat. Martinez jk. dio oinarriak finkatu behar direla eta formakuntza eta elkartzeko gunek bat eduki, gazteek beraiek horren kudeaketaz arduratuz. Dena den, hurrengo legegintzaldirako lehenengo pausuak ematea da proposamena, gai horietan adituak diren teknikariek mintzatuz aholkua eman dezaten eta bai erakundeak zein taldeak proiektuan sartzea, hasiera emateko proiektuari.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du gai horri dagokionez, alde batetik deigarria iruditzen zaiola adin tartea horren zabala izatea, 30 urte gehiegi iruditzen baitzaio, eta bestetik, harremanetan jarri dela Agoizko Karekin Kultura izeneko enpresarekin, kultur etxeari buruz mintzatzeko eta hura dinamizatzeko egin daitekeena aztertzeko, enpresa hori gai horietan aditua da eta EAJ taldeak egindako proposamena ikusita, proposatu du Gaztegunea egiteko enpresa horrekin harremanetan jartzea eta azter dezala modu orokorrean zer egin daitekeen.

Aho batez erabaki da alkateak, Irigaray jk., egindako proposamena onartzea eta Karekin Kultura delakoari EAJ taldeak Auritzen Gaztegunea sortzeko proposamena azter dezala eskatzea.

## **10.- BESTERIK**

### **Mendiaundiko ustiaketa dela eta eskatutako txostenen kostua**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du azkeneko osoko bilkuran De Potestad jk. eskatutakoaren arabera, Beaumont Aristu abokatuek Mendiaundiko jarduerari buruz emandako txostenaren kostua 1815 € dela, Erroibarko Udalak bideratzen ari den jarduera lizentziari aurkeztutako alegazioak 726 € eta Camino Jaso Leon biologoari harrobiaren eraginaren azterketa egiteagatik 1573 € eta ikerketa proiektuari alegazioak aurkezteko epean egindako ingurumeneko txostena dela eta 2537 € ordaindu zirela 2012an.

Modu berean gaineratu du txosten horiek Foru Administrazioak egin behar izan zituela eta haren jarrera kritikatu du ez baitu bere lana egin eta Udalei pasatu dielako arazoa, eta bere ustez egindako gastua ongi justifikatua dagoela, udalaren 90.000 m<sup>2</sup>ei eragiten baitie.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Udal hilarria**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Iruñeko Udalari eskatu diotela Erredineko Baluartean zegoen gure herriko hiliarria ematea, gaur egun udalaren biltegi batean dago.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Antsobiko erreka igerilekua**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du EUK udalak udan errekan pareta jartzeko baimena lortzeko jarritako berraztertze errekurtsoa ez duela onartu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Igel gorrien arrautzak lekuz aldatzea**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du duela hamabost urte egiten den moduan, joan den martxoaren 21ean herriko bizilagun batzuk eta Ingurumeneko zaintzaile batzuen artean igel gorrien arrautzak eraman zituztela urte osoan ura ez duten putzuetatik ura beti duten putzuetara, espezie hori mantendu eta gara dadin.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Azienda marka eta auzolana**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Menditxuri, Atalozi eta Lindusen bazkatuko den aziadaren marka maiatzaren 16an izango dela eta auzolana abeltzainekin adostuko dela, traktoreak eduki ahal izateko eta beraien lanetan trabarik ez sortzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Egur loteen salmenta**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du zenbait alditan luzatu ondoren, loteen enkantea egin zela eta Añoberrietakoa Larreagoitia Egurrak S.L. enpresari adjudikatu zitzaioela, 45.913,00 eurotan eta Antsobikoa Arimar enpresari, 31.400,00 eurotan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Sustapen Kontseilaritzari eskerrak ematea**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du laster igorriko diola eskutitza aipatutako Kontseilaritzari Udal honen izenean, Errepideak Neguan Garbitzeko Planaren bidez izan dugun atentzioa eta emaitza onak eskertzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Zerbitzuen Batasun berriaren estatutuen batzordeko bilera**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du batzordea bildu dela eta estatutuen zirriborroa ontzat eman dela eta horiek jendaurrean jarriko direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **San Juan bestak**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du bandoa igorri zuela, jende orori irekia eta espresuki gazteei, herriko festen datak zehazteko eta bertaratuek esan zutela ekainaren 23tik 27ra izan behar dutela. Beste aldetik badirudi zenbait neska gazte Tribuli dantzatu nahi dutela San Juan gauean agintarien aurrean, berak uste duela horrek ez duela gehiegi laguntzen generoen berdintasunaren alde egiteko, baina iritzi diferenteak errespetatuz, uste duela gazte guztiekin mintzatu beharko den gaia dela, dantzatzen den egunean arazoak eta giro txarra saihesteko. Otegui zinegotziak proposatu du bando bat bidaltzea etxe

guztietara esanez neskek Tribuli dantzatuko dutela eta bere ustez ez dagoela arazorik gazteen artean, arazoa adinekoren artean dagoela. Alkateak dio ez duela bandorik igorriko horrek esan nahi baitu neskek dantzatu behar dutela eta gu ez baikara inor dantzatu ahal duten ala ez esateko, dena den azpimarratu nahi du gaia eztabaidatu behar dela, arazorik ez izateko, Baztanen gertatu den moduan.

Martinez zinegotziak dio ados dagoela Irigaray jk. dioenarekin.

Azanza zinegotziak galdetu du ostalariek bileraren berri zuten eta bilerara joan ziren, eta alkateak, Irigaray jk., erantzun du bandoa herri osoan banatu zela eta gai bakarra festen egunak erabakitzea zela baina ez zela ostalaritzako sektorerik inor agertu. Azanza zinegotziak dio horrela izan bada, gero ezin direla kexatu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Tararai.**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Bazko igandean haurrek 559 € lortu zutela eta meriendarako, festetako haurren jardueretarako, Abuztuko ferian jartzen duten eskulanak egiteko materiala lortzeko eta neguan pelikulak jartzeko erabiliko direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Maiatzako Feria**

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du heldu den maiatzaren 3an antzinako feria modu sinbolikoan mantentzeko asmoz, liburu bat aurkeztuko dela, *Heriotza Auritzen eta inguruan. Artea, ohiturak eta hilerriak*. Liburua Garraldako Jose Etxegoien Juanarenak egin du. Eta joan den urtean jasotako sariaren diruarekin argitaratu da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Osasun Etxeko plaza**

Alkateak, Irigaray jk., esan du Osasun Kontseilaritzatik jakinarazi dutela plazako zola asfaltatzeko asmoa dutela. Berak aterako diren hondakinak Berroaundiako bidean botatzea eskaini diela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **11.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

- Martinez zinegotziak galdetu du zerbait egin den Kultur Etxeko inbentarioarekin eta berriro eskaera egin du. Alkateak, Irigaray jk., erantzun du hurrengo bilkuran eginga egongo dela.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da 21,00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.